

IRITZIA

Ixidor Solupe

ERREPORTAIA

Bizitza
gurpil gainean

UDALETXETIK

Urriaren 20ko
plenoa

KIROLA

Nazioarteko
Xake Txapelketa
azaroaren 26an
hasiko da

BAREN

1997ko urriaren 24o
V. urtea - 211. zkia.

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

Gurpil gainean tente



“Gizakiak ozil = = pei aurre egiterakoan ezagutzen du bere burua”

c) fzebrattk **1.219/mmania**
eaffa~ kheahaffeheo egifz eikothala da.

etuzautak -Zwilbak

c/Nezhwalak

Youth sollean,

*

(9,~ **31**, egaiz 49~ kaGaig

Yethanbakt tyae~ azk, zeibakil



MIMOX



San Frantzisko, 19 Tel: 74 42 13

KONPARA EZAZU MATERIALEN KALITATEA

Mendaroko Udalaren
alboko etxeak

Marmolezko
portalak/Gineako
egurrezko enpanelatua
Gineako tarima

- I Abeyay-zko zokaloak
 - II Sukalde, gela eta egongelan eskaiola
 - I Eskilarako eskubandak Gineako egurrezkoak
 - I Antena parabolikoa PVCzko pertsianak Igogailua Kalefazioa eta ur beroa txapazko berogailuekin
 - I Roca etxeako komunak
 - I Isolamendu termikoa
- 14.000.000 pta.tik** aurrera
Etxeak laister eskuratzeko aukera
(12 bakarrik geratzen dira)



Promociones inmobiliarias Mendaro

Tel: 75 51 68 - (94) 491 23 19





IXIDOR SOLUPE

1 448ko ekainaren 23a. Butrongo Jauna, oinaztarren buruzagia, ganboatarrak sitiaturiko Arrasateko hirian babestu zen. Azken hauek hiria hartzeko saiakeren ezinean, berau erretzea erabaki zuten.

XVI. mendeko kronistaren batek honako erromantze honetan isladatu zuen gertakizun hau:

*Gomiz andia zanarren,
an zan. Presebal bere,
bai Joanikote bere;
Maalenan ei dantza
biola, tronpeta bage.*

*Gomizek asko lagunik
zabal arabaarik.
giputz ondo ederrik,
bizkaitar urduri gogorrik.*

*Ez diazo bakarrik,
ze an dok Presebal ilik,
Joanikotegaz lagundurik,*

*txibuluen ospe bagerik,
ez urrun Maalaganik.*

Estrofa hauek guda zelaila deskribatzen dute, hildako gorputzez beterik, Arrasateko Maala auzoan.

*Argi izarrak urten dau
zeruan goian ostantzean;
Bergararrak czsi dira
traixoe haten asmatzean
euren artean dioela:*

*"Erre dezagun Mondragoe,
lasterrean joan gaitetz".*

*Kantoeko sartzaikeran
aen bizarrak ikara zirean
armakaz ezin ezer egin legez.*

*Ganboatarrak su emaitaen
asi dira, ta onegaz
urten daude berealcuz
mieztar harrunangoak
zein erre ez zitezean.*

*Gomiz Gonzalez bertan zan,
beragaz Presebalen kaltean,
Joanikok eta heste askok*

eudela parte bertan.

*Oin orraziatt luma
Untzuetako Jaun gaztea
baster baten igaro zan
uraz alde bestean.*

*Ama bereak esan eutsan:
"Sentea, zer dok orrelan?"*

*"Zaurietan zura dut, eta
amal nagotzu oera
egun bein or jarrita".*

*Ganboak senze lasterra,
ara bere lasterrago
Abetzdatiuxe Motela.*

*Eskar asko eznatzen deusat
andra Santa Maiñari,
bere elexan sartu,
eta etxera bidaldu nau ni.*

Erromantze hau Irakurriaz, denbora ez dela iragan dartada daukat.

Aspaldi, norbaiti honako esaldi hau entzun nion:

"Esperientzia argia bezala da, argitasuna ematen duena eta erretzen ez duena..."

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

"Ama amagandik sortu danak maite du ama, lurra, herria. Lurrik gabeko, herririk gabeko, amarik gabeko seme-alabak"

J.A.Artze



Nafarroa eoparantza, 2
20870 ELGOIBAR

'Er 74 41 12

Publizitatea:

ir 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA Ainhoa Lodoso

ERREDAKZID KONTSEILUA Andres Alberdi,
Rosa Agirregabiria

KAZETARIAK Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

Pueuzturea Miren Moreno

MAKETATZAILEA Miket Cornejo

ADMINISTRATZIOA Amaia Martin

M. Angeles Ortuoste, Flara Alvarez

KOLABORATZAILEAK Iñaki Agirreazaldegia,

Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria,

Ion Arrieta, Agurlane Arriola,

Edume Bilbao, M. Angeles Exposito,

Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza,

Ane Guilló, Jon Gurrulxaga,

Antton Irionclo, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Javi LeOn,

Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza,

Ongarri Zine Kluba,

Pelto Rubio, Julian Segundo, Ixidor Solupe,

Leire Urkidi, Iban Urizar

Unai Villena eta Jufen Zabafeta

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

INRRIMATEGIA Gertu Koop. E.

TIRADA 4.000 ale

LEGE GORDAILLIA SS-1.038/92

ISSN 1133-021X

Elgaibarko Udalak, Eusko
faurfaritzaka Kultura



12¹¹¹ fundazioa
fundacin

ffiDANOBAT
maQUIINAS HERRAMIENTA

KiliBARRENen amaiera

Hilaren zazpian Mendaroko Udaletxean bilera bat egin zen KiliBARREN gehigarriaren etorkizuna erabakitzeko asmoarekin.

Ordura arte nire ardura izan zen gehigarri hau aurrera ateratzea, baina arrazoi batzuk medio egiteko hau uztea erabaki nuen.

Bilera hartara deitu ninduten nire jarrera azaltzeko, eta UdaI zinegotzien lana zen hortik aurrera KiliBARRENekin zer gertatuko zen erabakitzea.

Baina gauzak ez ziren nik espero bezala gertatu. Anton Zubiaurre Mendaroko alkateak, nik ordura arte KiliBARRENen egindako lana gutxiesteaz gain, hutsaren pare utzi zuen. Argi utzi nahi dut ez dudala inongo protagonismo nahirik, borondatez egindako lana eskertzea baino ez dut eskatzen.

Bukatzeko, alkate jaunari esango nioke, berak esan bezala KiliBARREN egitea hain erraza dela pentsatzen badu, bere esku dagoela KiliBARREN ez desagertzea.

Oihana Tarragual Ulazia

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.



18111DEla

• "17 urteko neska talde bat gara eta gure galdera honako hau da: **Astean zehar ezinezkoa egiten zaigu Liburutegira joatea tanak egiteko. Larunbat goizean joan eta itxita zegoen. Nola eta non egingo dugu gure lana itxita badago? Ez al dago larunbat goizetan zabaltzeko aukerarik?"**

Udal Kultura Batzordeko buru den Ana Santolayari luzatu diogu galdera eta ha-

ra hona zer erantzun digun: "Aurten, ekaineko azterketa garaian liburutegia larunbat goizez irekitzea erabaki genuen. **Hiru hilabetez egon zen larunbat goizetan irekita** eta batz bestea, eguneko **bi pertsona baino ez ziren joan**. Joan zirenak gainera, liburu-aldaketak egitera joan ziren eta ez ikastera. Zenbaki hauek Kultura Batzordean aztertu ziren eta **zapatu goizetan ez zuela irekitzea merezi ikusi genuen**".



• "Goizeko 8etan irteten nalz etxetik egunero eta Sigmako zubitik Eibar aldera jotzen dut. *Normalidad en las carreteras guipuzcoanas; la ertzantza controla los puntos conflictivos de Elgoibar y Beasain*, irratiaren entzun ondoren. Baina **8ak eta minutu bat pasa orduko, Sigmako zubian ez dago inor trafikoa zaintzen**. Uste dut, ziur

nago, 8ak arte, ez minutu bat gehiago, ez gutxiago, Udaltzaingoa egoten dela. Asko eskatzea al da beste ordu laurden batean, norbait, ertzantza edo udaltzaingoa, bere lanean egotea puntu horretan? Itxura denez, 8etatik aurrera beste betebeharrak gantzitsu batzuk dituzte, eta dena ailegatu ezinik dabil-tza gizarajoak".



TXALOA

• Neska-mutil talde batek **Itxaropena abesbatza** txalotu nahi du bosgarren urteurrena bete duelako eta kontzertu oso ederra eskaini zutelako.

BAI, ESAN?



gi000101¹¹¹0%

Juan Carlos Marcos

HBko zinegotzia

Aste honetako telefono deia **HBko zinegotzia den Juan Karlos Marcosi** luzatu diogu. Marcosek ezezagunen heriotza mehatxua jaso du eta ez da amenazuak jasotzen dituen Ichen aldia. Ikus dezagun zer kontatzen digun.

- **Zein mehatxu mota jaso duzu?** - Urriaren 11 n eskutiz bat jaso nuen bala batekin eta idatzita zeukan "Esta es para Sinadura gisa bandera espainola zetorren.


- **Ez omen da mehatxatzen zaituzten lehen aldia.** - Uztailen telefono deiak jaso nituen, "Estareis contentos, hijos de puta" eta horrelakoak esan zizkieten nere amari. Ermuko zinegotzia hil zenean gertatu zen. Pare bat egunera bandera espainolak eta GALen pintadak agertu ziren eta uztailearen 22an eskutiz bat "Asesino, no olvidaremos. Dimite o muere" mehatxuarekin. Migel Angel Blancoren heriotzarekin, Espainiako gobernuak eta Ajuria Eneako paktukoek, komunikabideen laguntzaz, ezker abertzalearen lintxamendua eta gorrotoa bultzatu dute. Hortik aurrera hasi dira mehatxuak.

- **Beldurrik bai?** - Azken mehatxua oso serio hartzeko modukoa da. Are gehiago asteleheneko plenoan Garate alkatearen jarrera ikusita; gaia aztertu ere ez zuen nahi izan eta zinegotzi gehienak isilik geratu ziren. Hala ere, oso lasai nago, beharbada mehatxuen helburua nigan eta nire inguruan presio psikologikoa eta politikoa egitea dela pentsatu nahi dudalako.

Ikusten al diozu irtenbiderik egoera honi? - Irtenbidea badago, noski! Ezker abertzaleak 20 urtetik gora daramatza bake proposamenak luzatuz. Azkena 95eko apirilean ETArekin Altematiba Demokratikoa izan da. Baina espainiar gobernuak ez du bakerik nahi, espainolismoa inposatzea baizik. Horregatik nahi dute Mahai Nazionala epaitu eta gartzelaratu. Mundu osoan gatazka politikoak negoziazioaren bidez konpontzen dira. Zergatik ez hemen? Zergatik ez errekonozitu autodeterminazio eskubidea? HBk Irlandako bake prozesua aztertuko duen foro baten sorrera proposatu du. Gure aldetik konponbiderako proposamenik ez da falta.

ESKERTZA

1997ko urriaren 13an, 71 urte zituela hil zen **JESUS UNCILLA AGIRRE**ren sendiak bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Bizitza gurpil gainean



Bizitzak kolpe gogorra eman zien. Istripuz edo gaixotasunak eraginda, aulki batean eserita bizitzen ohitu beharra izan zuten. Ordura arteko bizitza independentea dependiente bihurtu zen nolabait eta egunerokotasuna erronka. Baina, burua altxatu eta egoera berriari aurre egin zioten. Igor, Gemma eta Jose pozik bizi dira, itxaropentsu. Gemmak esan digunez, "hasieran aulkia ez nuen ia ikusterik nahi. Gaur egun nere lagunik onena da".

ralun-aulkian, "San Pedro tik behera gatozela koixian akzidentia euki gendun. Laguna hil ein zan, bere andriari ez jakon ezer pasau eta ni ibili ezinik geratu nitzan".

Gemma Agin'egomezkortaren kasua desberdina da. 45 urte dituen emakume honek "Distrofia muskularra" izeneko gaixotasuna du hezurretan, "poliki-poliki indarra galtzen zuaz gorputz guztian. Oin dala 15 urtetik nabil silan". Igor Elizburu da gazteena, 19 urte besterik ez ditu eta zoritxarrak duela urte eta erdi jo zituen bere bizitzako ateak. Motorrean istripua izan zuen eta ondorioz ezindua geratu zen.

Hirurek gogoan dute oinez gehiago ibili ezinik egongo zirela jakin zutenean sentitu zutena. Joseren hitzetan, "neri mundua behera jausi zitzatan. Ez dakizu zer eingo dozun, zela izango dan...". Halere, hasieran era horretako pentsamenduak izatea oso norrnala da, "onartu arte", esan digu Igorrek. Flankak sentitu gabe, ibili ezinik egotea "zure gorputzaren barruan preso egotea bezala" dela azaldu digu Gemma, "Nahiz eta ondo hartu, kosta egiten da. Eta batzuk etxetik atera ere ez dira egiten. Hori da txarre-na, bizitzari ateak erabat ixtea". jakinarazi digu Josek.

Berdina baina beste era batera

Igorrek esan bezala, "berriz jaioko bazina bezala da. Hutsetik hasi bihar zera dana ikasten, gurpil gainian ibiltzen...". Igorrek 7 InIabete pasa zituen Toledon, errehabilitazioan, "hasieran oso gogorra da. Sillan zabilen bat ikusten naban eta beste arazorik ez zakala pentsatzen naban. Gero ikusi naban beste arazo batzuk egon arren, zu baino gaizkixo dauan jende asko ere badauala. Neri amorrua ematen zian ikustiak zela batzuek ez zebe eitzen, etsita moduan zeuden. Azken finian, lehen eitzen zenduzen gauzak ein ditzakezu, beste era batera baina ein ditzakezu. Gehixenak behintzat".

Halere, kasu bakoitza pertsonala eta berezia da. Inork ez du bestearen antzik. Adinak, gorputzak eta, hatez ere, bu mak eragin handia dute. Igorrek betidanik kirol asko egin izan du, mendian ibilitakoa da eta gorputz sendoa du. Josek urte gehiago ditu, baita pisu gehiago ere eta honek mugatu egiten du. Gemma ren kasuan, berriz, gaixotasuna areagoruz doa egunez egun, Halere. burukoa da indarrrik garrantzitsu eta eraginkorre-



Jose Galarragak 60 urte ditu eta 18 urte daramatza etTobe-

na. Izan ere, Gemma gauero bere etxean bi orduz tentetu eta oinez ibiltzen da, "medikuek 10 urtetik hona nik dakaten muskuluekin ibiltzia ezinezkoa dala esaten die. Ia zela lortzen doten galde-tzen die. Nik ez dakat erantzunik, baina nere buruan dakaten ilusiva eta gogua muskuluen indarra baino askoz fuer-tiauk diala konbenziduta nao".

Bizitza ahalik eta independienteena

Josek norbaiten laguntza beharrez-koa du, "ohera juteko, silla batetik bestera pasatzeko...". Igor, aldiz, bi-zitza ahalik eta independienteena egi-ten saiatzen da. Autoa gidatzeko bat-men berezia atera zuen eta bere kon-tura joaten da eskolara, IMHra. "Le-hen fabrikazio modulua eitzen nabilen baina oin delineaiziora pasau naiz. Fa-brikazivan makina baten ein biharko naban lan eta ezingo naban". Hasiera-tik izan zuen garbi berak istripuaren aurretik zeraman bizimoduarekin ja-rraitu nahi zuela, ahal zuen neurrian behintzat. Uztailean San Ferminetan izan zen lagunekin, "bi egun pasatu nitxun, kotxian edo zelairen baten lo-tan. Lehen bezela. Logikoki dana da

beste era batera baina igual-pasatzen dozu **ondo**". Igorrek kirola egin nahi luke aurrera begi ira, "ondiok ez dakit zertan **hasiko** naizen. Piragua bat probatzen egon nitzan bai-na ez dakat era-bakitza ezer". Gemmak eta Jo-sek,

biek animatzen dute Igor gorput-za aktibo mantendu eta kirolen bat egitera, "egun osua sillan eserita geldi bazaude, beste arazo batzuk sortzen hasten dia, giltzurrunekuak, esate ba-terako. Oso inportantia da ahalik eta gehixen eixia ariketa fisikua eta, ahal bada, tente ipini eta nola edo hala ibiltzia", esan du Josek.

Igor egunero ibiltzen da aparatu ba-tzuen laguntzaz, "Toledon gauza berri-xak probatzen ari dia eta badakat itxaro-pena egunen baten berriz ibiltzeko".

Oztopo arkitektonikoak

Aparatu ortopedikoak oso garestiak dira eta ez dute ia laguntzarik jasotzen Osakidetzatik. Josek adierazi digunez, "sillan jartzeko kojinekin batzuk erabiltzen ditxugu eta bizitza osorako bat baka-rrik ematen dizue. Normala dan bezela denboriakin gastau eta apurte eitzen dia eta berrixa erosi bihar da, baina ho-ri zure kontura da". Gorpildun-aulkiek ere dexente balio dute. Igorrek eskuzko bat dauka eta 400.000 pezeta inguru balio ditu. Gemmak eta Josek, berriz, bateriarekin ibiltzen direnak dituzte, 1,5-2 milioi pta. ingurukoak. Urte ba-tzuetatik hona gauzak asko aldatu diren arren, oraindik ere hobera egin beharko lukete zentzu askotan. Gemmak esan digunez, "hasiera baten gaixotasunak daka inportantzia gehixen baina onart-zen dozunian beste arazo asko dauala konturatzen zera. Edifizivak. dendak eta tabernak, espaloiak.. ez daude bat ere ondo preparauta guretzat". Ez hori bakarrik, Joseren hitzetan, "ez daude asko eta daudenak askotan jendiak ez ditxu errespetatzen. Guretzat jarritxa dauden aparkamientuetan aparkatzen dau jendiak, espaloietako ranpak lauak izan biharrian koska txiki batekin ego-ten dia... Garajietarako ranpak oso on-



Igor Elizburuk autoa gida-baimena atera du.

do eitzen dabe, ze kostatzen da guret-zat ere ondo eixia?"

Amets bat: pozik bizitzea

Ez Udaletxera, ez liburutegira, ez Kultur Etxeko hitzaldi gelara..., "toki askotara ezin gera jun ez daudelako guretzat preparauta. Beste askotan, as-zenoria badao baina beti daude pe-gak. Merkatu Plazara juteko kargara-ko aszenoria erabili bihar izaten dou eta askotan okupauta egoten da. Ki-roldegikua ere almazen modura dake eta behin ordu erdi zain egon eta gera alde ein naban aspertuta. Ordutik ez naiz bueltau", azaldu digu Gemmak. Etxean ere aldaketak egin behar izaten dira. Gemmak plataforma jarri zuen portalean etxera igotzeko. Igorrek ranpa txiki bat portalera sartzeko. Jo-sek atea zabaldu eta korrederak jarri behar izan zituen. Baina arazoa kalera ateratzea izaten da, "urte batzuetatik hona gauzak aldatu ein dia. Sentsibili-zaziva badao, baina, hala ere, gauza gehixo ein teike". Autobusa hartu nahi dutenean aurrez deitu behar dute, "behin Mendarora jun bihar nitzan eta bi bider deitxu naban abisatzen. Azke-nian guretzat preparauta ez zauana etorri zan eta txoferran bronkia nik entzun bihar izan naban", kontatu di-gu Gemmak. Kexak bidali izan dituz-te Udaletxera, "zeozer ingo dabela esaten dabe baina ezer".

Beste era batera bizitzen ikasi be-har izan dute. Gaez, lo daudenean, sarri egiten dute amets oinez ibiltze-ko gai direla. Batek daki egunen ba-tean ametsa egia bihurtzea posible izango duten. Bien bitartean hirurek esna daudenean amets berdina izaten dute, "zure buruakin gustura egon eta pozik bizitzea". Guztiok dugun desio bera, ez?

Jose Galarraga espaloietako koskak direla eta kexu da.



Eragitn al elzu taizeak?



IRATXE PANIZO
17 urte, ikaslea

Bai, astelehenean burukomina izan nuen eta normalean ez dut burukominik edukitzen. Nere ustez, egurIdiarengatik izan zen. Gehiegi ari da luzatzen eguraldi zoro hau.




NIEVES UNZUETA
56 urte, langabetua

Bai, katarroarekin nago. Alergia moduko bat sortzen dit eta sudurra kargatu egiten zait. Euria egin beharko du halako batean baina ni eguraldi honekin gustura nago.



ROSA ASTIGARRAGA
24 urte, langabetua

Bat ere ez. Udazkenian ilia jausten jata baina egualdiak ez dia eragiten. Garai bakoitzian tokatzen dan egualdixa eitxia nahixo dot baina gustora nao egualdi honekin.



THOMÍN VARONA
61 urte, jubilatua

Bai, izugarri. Gorputza ez dago berdin eta emazteak ere astun xamarra nagoela esaten dit. Gainera, bihotzkoa daukat eta ez dit batere onik egiten beroak.



1111GO CANALES
11 urte, ikaslea

Ez, ez dot gauza rarorik igartzen. Egualdi hau batzutan gustatzen jata baina neguko hotza hasi, txamarra potolua jantzi eta eskiatzera juteko gogua dakat.



JOSE CABORNERO
41 urte, Estazioburua

Bai, asko. Burukomina ten dut, gorputza Iarri xamar sentitzen dut... Nik hotza nahiago dut baina eguraldi hau komeni zait zerbi kaletarako.

SA
JATETXEA



OZAETA JAUREGIA
(Bergarako
hegoaldeko irteera)

MONUMENTU
NAZIONALA



Tel: 76 10 55 BERGARA

EZKONTZETARAKO
JANGELA
ZABAL eta APROPOSA

PARKING PRIBATUA
TERRAZA
eta LORATEGIA

Asichowtako
DEGUSTAZIO MENIJA

Alvdte aspic Irufattiu
klortdcloen berroen .sultsatun
llsttSkiz Delettlo

Orrina erreta gaztain, .stsh,tar eta grosellen
trutajelea purceretlin

Alinerwintzko gozollia
11'

Ogia 3 urteRo litro erdiko urclou eclo
ur minerolo, Rurea efa petit four5-uli

5.300 pta. + BEZ (%7)
Guztia elxcan egina

Hego haizea

`Hegoa, andreen gogoal

Azken hilabeteotan ez ohiko eguraldia izan dugu. Uda amaiera beroa izan da benetan. Udazken hasiera, berriz, uda-udakoa. Eta azken egun haue-tan, hego haize zoroa.

Hain haize ezaguna denez, bere inguruan jardun handia sortzen du gaur ere hego haizeak. Den-dena kontrolpean dagoela dirudien gizarte honetan eta ia ezer asmatzerik ez denean, haize honek erromantiko fama dauka. Gauak aproposak dira amodiozko historia eder bati hasiera emateko eta zaharrak berritzeko.


Euskal Herriko mitologia askotan agertzen zaigu hego haizea. Kontakizun herrikoietan haizeak pertsona forma hartzen du. Denok ezagutzen dugu adibidez, hego eta ipar haizearen arteko borroka. Magia eta sorginen akelarreen ere zerikusia izan duela badakigu. Urte sasoi honetan, San Martin bitartean ospatu ohi zituzten orgia hauek hego haizea lekuko zutela.

Haizeak naturarekin lotura duenez bizidun guztiongan eragina izaten du.
Sarri

entzuten dira jendearen artean horrelako komentarioak: "Badator hego haizea; hango mina, hemengo mina..." Gaitz fisikoengan ez ezik psikologikoengan ere badu eragina. Hegaztiak euren zikloa bete nahian hor dabilta zerua estaltzen hara eta hona. Baserri inguruak ere astintzen ditu haizeak. Udazkeneko fruituak heltzeko orduan zerikusi handia izaten du.

Baina orain, ustez "ondo" gaudenontzat ere badu sorpoesatxoren bat haize honek: `andre-haizeaz' ari naiz hitzegiten. Dirudienez, gizonak alpertu eta mimosotu egiten omen dira eta hara non emakumearen behar eta babes gehiagoren premian aurkitzen diren. Badakizue zertaz ari naizen, ez? Hau zientifikoki frogatzerik ez dagoen arren, tarteka mediku batzuek aitortzen dute baduela zerikusirik. Beraz, ezer gutxi ukitzen gaituen honetan, horra hor hego-haizea.

Rosa Agirregabiria



Irf LUARI BEGIRA



o.AG,
Erizaina

- **Zein gaixotasunen sendagarria nahi zenuke deskubritu?** - Minbiziarena.
- **Zeren kontrako txertoa jarriko zenioke munduari?** - Estresaren kontrakoa.
- **Zeren dosi txikiak behar dituzu egunero?** - Gutxienez ordubete libre nahi dudana egiteko.
- **Zer errezetatzen diozu zure buruari egun tristea duzunean?** - Nahiz eta gogorik ez izan, aktibitatearen bat egiten dut.
- **Bihotzeko saminaren kontrako sendagarria?** - Fuertea izan behar zara eta egoera onartuz aurrera egin.
- **Galduta dagoen zein balore eramango zenuke larrialdietara?** - Errespetua eta autokonfidantza.
- **Zirujia estetikoak egingo al zenuke?** - Nik ez baina konplejo handia duen pertsona batentzat irtenbidea izan daiteke.
- **Senda-belarrrik hartzen al duzu?** - Baleriana eta mantzanila.
- **Lanerako sekzio gustukoena?** - Oinarrizko atentzioa anbulategian edo bestela orain nagoen sekzioa, tokoginekologia.
- **Printze urdina existitzen al da?** - Momentu batean pertsona batekin gustura bazeude, hori izan daiteke zure printze urdina.
- **Zein koloretakoa ikusten duzu bizitza?** - Kolore argiekin ikusten saiatzen naiz.
- **Zerk bizkortzen dizkizu bihotz-taupadak?** - Oso urduria naiz, beraz gauza askok, baina bereziki istripuek.
- **Gustuko jaiak?** - San Ferminak.
- **Gustuko jateko bat?** - Angulak, baina gulekin konformatzen naiz.
- **Egin duzun azken erokeria?** - Gaez berandu erretiratu eta hurrengo egunean lanera joan.
- **Zortea ematen dizun zenbakia?** - 8a.

• **116**
autoinkulpazio
aurkeztu ditu HBk
epaitegian

Elgoibarko HBk 116 herritarren autoinkulpazioak aurkeztu zituen asteazkenean Elgoibarko Bake Epaitegian. Herriko 116 lagunek ETaren Altematiba Demokratikoaren edukiarekin bat egiteagatik euren burtm errudun aitortzen dute. HBko Mahai Nazionalaren epaiketa dela-eta autoinkulpazio kanpaina egin du HBk. Euskal Herri osoan 11.000 autoinkulpazio egin dira.

• **Emakume**
langalietuei
zuzendutako
saltzaile ikastaroa

Epe laburrean hasiko da "Neurri handietako saltzaileak: bazar, ehuneko generoak eta linea marroiko elekragailuak" izeneko ikastaroa, Emakurneen Prestakuntza eta Enplegurako Ekimena prograrnarrert barruan. Aipatu programa DEBEGESAko eta eskualdeko Udalek bultzatu dute eta Europako NOW programa barruan kokatzen da, emakumენტzat aukera berriak bultzatzea duelarik helburu. Azken ikastaro hau gehienez gai mailako batxilergo edo Lanbide Heziketako 2. maila duten 18 urtetik gorako emakume langabetuei edo behin-behineko lana dutenei zuzendua dago. Interesatuek azaroaren 13ra bitartean eman dezakete izena Udaltxeko Ongizate Sailean edo DEBEGESAko bulegoetan (Ibarbea Trab. z/g., Eibar). Aipaturiko ikastaroa azaroaren 25ean hasiko da eta Eibarren izango da.

Apralzko errota ez duela botako garantizatu du Aldundiak

Oraingoz ez **dute** ziurtatu lekuz aldatuko duten ala ez

A Azken herrien arabera, depuradora Apraizko lurretan jarriko bada ere, Gillermo Garate alkateak ziurtatu duenez, "Aldundiak errota errespetatzeko konpromezu formala hartu du". Hala ere, proiektua egin arte ezin da ziurtatu lekuz aldatuko duten ala ez. Joan den astean Gillermo Garate alkatea eta Aldundiko arduradunak gai hau aztertzekeo bildu ziren. Aldundiko Obra Hi-

draulikoaren Sailekoen arabera, depuradorak ez du usain txarrik sortuko. Adibide modura Galindoko inguruan eta Urola aldean, Lasaon hain zuzen, dauden depuradorek ez dutela kiratsik sortzen aipatu zuten.

Depuradora eraikitzekeo obrak 2.000 urtea eta gero hasiko dira. Lehenengo aurreproiektua egin behar da eta Ur Kontsorzioan aurkeztu. 1997ko amaieran proiektuaren zirriborroa begi onez ikusten bada, 1998ko udaberrian oinarritzeko proiektua eta baldintzen zerrenda egingo dira. Prozesu administratiboa eta finantziarioaren azterketa 1999an egingo lirateke. Dena den, Elgoibarko depuradoraren aurretik Goierrikoa eta Bergarakoa eraiki nahi ditu Aldundiak.



Juan Karlos Marcos HBkideak salaketa jarri du epaitegian mehatxuak direla eta

Aurreko ostegunean Juan Carlos Marcos HBko zinegotziak salaketa jarri zuen Eibarko epaitegian jaso dituen mehatxuak direla eta. Marcosek prentsaurrekoan adierazi bezala, urriaren 11n etxeko balkoian sobre bat topatu zuen 12 mm.ko bala batekin eta "Esta bala es para esaldiarekin. Mehatxua espainiar banderarekin sinatuta zetorren. Joan den uztailean, berriz, Gal-en pintadak eta espainiar banderak agertu ziren portalean eta beranduago "Asesino, no olvidaremos, dimite o muere" mezua bidali zioten. Mehatxuak ere jaso zituen telefonoz.

HBko Pello Mendizabalen ustetan, Marcosek jasotako heriotza mehatxua Miguel Angel Blanco zinegotziaren heriotzaren inguruan

kokatu behar da, "PPren estrategia polizialaren barruan. Nazio proiektua suntsitu eta irtenbide poliziala nahi dute". Paktuko alderdien jarrera argia da Mendizabalen ustez. "Arrigorriagako presoak gartzelan hurraturik agertu zenean, isiltasuna izan zen nagusi. Oraingoan ere gure herriko udaltxean ez du inork txintik esan" Astelehenean izan zen plenoan alkatearen jarrera kritikatu dute bai Marcosek bai Mendizabalek. "Garateren iritziz Marcosek mehatxuek ez zuten urgentziarik. Ez mozioa ez pleno berezirik egitea ere ez ziren onartu. Beste edozein zinegotzi izan balitz, gauzak beste modu batean kontsideratuko ziratekeen. Gogora ekarri nahi dugu Zizurkilko mani-

festazioan eskuartean zermaten pankartak zer zioen: dagoena errundun'. Isaak Loiolak parte hartu zuen manifestazio hartan. Orain gauza bera esan dakeie eurei: Isilik dagoena errundun".





Rxaropena abesbalzaren V. urteurrena

Bi kontzerturen emanaldiarekin ospatu zuen Itxaropena abesbatzak 5. urteurrena. 1992an sortutako abesbatza oso gazte-urik agertu zen Plaza Handian eman zituzten bi kontzertuetan. Jende gaztearen eta beteranoen ahotsek bat eginda pelikula ezagunetako abestiak eta duela urte batzuek arrakasta handia izandako abestiak kantatu zituzten. Ostiral gauean eta larunbat iluntzean izan ziren kontzertuak. Ostiralean 200 bat ikusle bildu ziren eta larunbatean, berriz, Plaza bete egin zen, 500 lagunetik gora elkartzuz. Nerea Ugarte azpeitiarrak zuzentzen duen abesbatzari lagunduz Musikeskolako ikasleek perkusioa, kitarra eta pianoa jo zuten.

Kolektorea ibaiaren eskuin aldean jartzea onartu du Aldundiak

Elgoibarko Udalak etxeetako ur fekalak jasotzeko kolektorea ibaiaren eskuin aldean egitea proposatu zion Aldundiari. Gillermo Garate alkatearen esanetan, "Aldundiaren hasierako planteamendua kolektorea herriko kaleen azpitik egitea zen, hau da, Goikoerrotatik Madala bitartean hodi zabal bat jartzea. Baina proposamen hau atzera bota du Aldundiak, herriko kaleak berriz zulatu beharko liritekeelako eta azken uholdeen ostean egin zirelako kaleetan konponketa lanak. Pmposamen hau onartezina zen guretzar.

Joan den ostegunean, hilak 16, Aldundiko Obra Hidraulikoaren Saileko ordezkari bat eta Gillermo Garate alkatea gai hau aztertzeko bildu ziren. INGELAN enpresak azterketa bat egin zuen Udalaren aginduz eta kolektorea ibaiaren eskuin aldean jartzea gomendatu zuen. Alkateak proposamen hau aurkeztu zion Aldundiko ordezkariari eta honek onartu egin zuen.



Nitxoan hustuketa

Udal Ongizate Sailak jakitera eman du datozen egunotan Olasoko kanposantuko zenbait nitxo husteari ekingo diotela. 1987an hildakoen nitxoak dira hustuko direnak 10 urteko epea bete baitute. Gai honi buruzko berri gehiago jaso nahi duenak Udal Ongizate Sailera jo dezake.

Jubilatuen Etxeko tabernaren esplotaziorako deialdia egin da

Elgoibarko Udalak Jubilatuen Etxeko tabernaren esplotaziorako deialdi publikoa egin du. Arauen arabera, kontratua urtebetekoa izango da nahiz eta luzatzeko aukera egongo den. Hilero 15.000 pta, ordaindu beharko ditu alogera modura hartzaileak. Gainontzean, ateratzen den gutzia eskuratu ahal izango du. Kontuan izango dira esperientzia, eskaintza ekonomikoa, zerbitzua euskaraz eta gaztekeraz emateko gai izatea eta gestionatzeko era. Izena emateko epea Gipuzkoako Buleun Ofizialean argitaratu eta 26 egunetara amaituko da.

Ordu aldaketa egin behar da asteburuan

Udazkenaren etorrerakin ordu aldaketa etortzen da. Larunbatetik igandera bitarteko goizaldean ordulariak ordubete aurreratu beharko dira. Goizaldeko hirurak direnean ordulariaren orratzak ordubietan jarri beharko dira.



San Viator eguna Pilar ikastetxean

Joan den asteartean San Viator eguna ospatu zuten Pilar ikastetxean. Goiz osoan pilota eta futbol partiduak jokatu zituzten ikasleek eguraldi aparta lagun izan zutelarik. Eguerdia arte luzatu ziren jokoak eta ondoren sari banaketa izan zen. Futboleko eta pilotako txapeldunei eta txapeldunordeei dominak banatu zitzaizkien. Argazkian ikus daitekeen bezala, pozik hartu zituzten sariak Pilarreko neska-mutilek.

• **Gotzon Arrietaren agurra**

Joan den asteko zenbakian aurreratu genuen bezala, Gotzon Arrieta, EAJ-PNV-ko zinegotzia eta Euskara **Batzordeko** lehendakaria izan denak, orain arteko kargua utzi zuen asteleheneko plenoan. Ingurugiroari buruzko master bat egiten hasi da Donostian eta Euskara Zerbitzuak eskatzen duen dedikazioa ezin izango dio eskaini aurrerantzean. Gotzonen ordeztu, Alberto Iriondo Elustondok hartuko du aipatu batzordearen ardura.

• **OTArri huruzko lehen pausoak**

Plenoan, OTaren inguruko prezioak onartu ziren. Epe laburrera, Trenbide kalean, Pedro Migel Urruzunon, Aita Agirre plazan, Santa Anan, San Inazion, Ubitarten eta Antonio Arrillagan autoak denbora mugatu batez aparkatu beharko dira. Erabaki honek EAJ-PNV, EA eta PSE-EEren aldeko botua izan zuen.

• **1998ko zergak %3,2a igoko dira**

1998 urteari begira zergen zenbatekoa %3,2an igotzea onartu zen. Isaak Loiola, Hazienda lehendakariaren esanetan, erabaki honen asmoa datorren urtean 1997an izan den inbertsio ahalmena mantentzea da, "1 I milioi gehiago jaso behar ditugu datorren urtean eta horretarako derrigorrezkoa da presio fiskala igotzea. Datorren urtean pertsona bakoitzak 950 pta. gehiago ordaindu beharko ditu".

"Bakea behar dugu" lemarekin pankarta jarri da Udaletxean

Giro bero eta tentsoa bizi izan zen joan den asteleheneko plenoan. Bertan, HBk, alderdiko zinegotzia den Juan Carlos Markosek jaso dituen mehatxuen aurrean urgentziatzeko mozioa aurkeztea eskatu zuen baina Gillermo Garate alkateak ezetza eman zien, "gaiak horrenbesteko urgentziarik ez duela" iritziz zuelako. Momentu horretan alderdiko kide eta zenbait jarrai-tzailek pankarta bat zabaldu zuten Udaletxeko pleno aretoan "Dentokrazia Euskal Herriarentzat, askatasuna" lemarekin. Ez ohiko udalbatza izan zen eta besteak beste "Bakea behar dugu" lemarekin pankarta bat jartzeko mozioa aurkeztu zuten alderdi guztiek.

4 / Bakea behar dugu" lemarekin pankarta jartzeko proposamena egin zuten alderdi guztiek.

Halere, bakoitzak bakeari buruz ulertzen duena azaldu eta bere mozioari buruzko azalpenak eman zituen. Herri Batasunako Pello Mendizabalek hartu zuen hitza iehe-nik, "guretzat bakea justizian oinarritu eta eskubide indibidual eta kolektiboetan finkatu behar da". Mendizabalek gaineratu zenez, "Euskal Herriaren gehiengoak eskatzen du elkarrizketa. Bakea behar dugu eta borroka bideak desberdinak badira ere helburu berdina daukagu eta Euskal Herriak denon beharra du. ELak erakutsi duen bidea jarraitu behar dugu, denok batera".

Isaak Loiolak tripartitoaren izenean hitzegin zuen, EAJ-PNV, EA eta PSEk batera aurkeztu baitute mozioa. Loiolak esan zuenez, "oso sentsibilizatuak gaude gai honekin eta argi dago denok behar dugula bakea. Baina, bake hori batzuek bide demokratikoak erabiliz bilatzen dugu eta beste batzuk biolentziaz baliatzen dira. Bakea lortzeko biolentzia utzi behar da. HBk ETaren ekintzak salatzen ez dituen bitartean, ez dezala gurekin kontatu".

EB-IUko ordezkariak hartu zuen hitza ondoren. Juan Ignacio Ausinen iritziz, "bada ordua iraganean gertatu den guztia ahaztu eta benetako bakearen bila

ateratzeko. Bakea era hondratuan lortu behar dugu, desberdintasunak alde batera utzita. Herriak hori nahi du eta gure esku dago ematea ala ez".

Bozketan, tripartitoak aurkeztutako mozioak jaso zituen baiezko boturik gehienak eta. Asteartetik "Bakea behar dugu" lema daraman pankarta dago Udaletxeko balkoian.

HBko Mahai Nazionalaren kontrako epaiketa

HBko Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa martxan da. Gogoratu aipatu alderdia ETaren Alternatiba Demokratikoaren bideoa defendatu eta zabaltzeagatik epaitzen ari direla. Honen aurrean, HBk mozioa aurkeztu zuen, "epaiketa politikoa moztu da eta bake bidea urrundu eta gatazka areagotu egingo du". HBren mozioak bost puntu jasotzen ditu, "Adierazpen askatasuna bermatu behar da; HBren aurkako prozesua gaitzetsi egiten dugu; Alternatiba Demokratikoaren aldeko ekintzak zigortzea errefuxatzen dugu; Espainiar Estatuko Tribunal Gorenari Mahai Nazionalako kideen errugabetasuna adieraztea eskatzen diogu eta elkarrizketarako bidea eskatzen dugu bakea eta gizarte demokratikoa eskuratzeko".

Gai honen inguruan tripartitoak martxoaren 6an izan zen plenoan adierazi zuena nantendu zuen, "epaiketa zahantzan jartzen dugu eta ukitu politikoa ikusten zaio. Halere, HBk propaganda egiteko era aproposa bilatu du".

Botazioan, EB-IU abstenitu egin zen eta gainontzeko alderdiek aurka botatu zuten. HBren mozioa atzera bata zen.



Asteartetik dago pankarta zintzilik Udaletxeko balkoian.


Merkatuko marka onenekin

Zugandik oro, fertu

GARATE

Jantzidenda


San Bartolome, 13 Tel: 74 11 29



ION

YanIziOrel2 JC1


San Bartolome, 37 Tel: 74 06 27



Errosario, 16-18 Tel: 74 32 68



San Frantzisko, 21) Tel: 74 40 98



1.irozarkvizia

San Bartolome, 35 Tel: 74 12 71 C.B. 15



San Frantzisko, 34 Tel: 74 02 35



San Frantzisko, 29 Tel: 74 32 06



San Frantzisko, 30 Tel: 74 03 41

**!!Ellaciharrera, zttan eta zure
tamilliarerman nerretsattlz, zenhait
tlericlak orcluteula zahaldu tluau
lartmhat arratsalcieetan ere ireKiz.**

ASTICALILAGit UWCILIE

ULLUI f4CUAL Mt UI AktliSLIAL11 CttULNI

1CN JANIZIULNUA MAILACAN JANIZIULNUA

ACill LE SASILLIA CSCLC ZALLUALENUA

IDIIXINIXU LIIMAJULNUA

**MerKattake onereareKin eta
herrietaareKin, zuoantlik oso aertta.
Larturahat arratsaltleetan ealiten cluzum
eresKeta haKeitzareneatik
tresKamarri ecl Kate hat hartzera
gonhiclattaKe zaltueu.**

Zatoz Elgoibarrera!

ario kalean • Errosario kalean • trrosario kalean •trrosario kalean • Errosari




**Errosario. 16-18
74 32 68**

ASTIGIRRIGI

**Jantzi zaitez aurtengo neguan
kirol modako markarik onenekin.
25 urte eman ditugu herritarren
zerbitzura, eta hori zuen konfidantza
mantentzeko garantia da.**





GARATE

Janzidenda

San Bartolome, 13 Tel: 74 11 29

San Eartolome kalean • San Eartolome kalean • San Eartolome kalean • Sau



F
e
r
p
i



m
o
d
a
k



San Bartolome, 38
Tel: 74 08 15

Plazatik beherantz • Elazatik beherantz • Liazatik beherantz • Elazatik b



Lafea edo pastela • Lafea edo pastela • Lafea edo pastela • Lafea edo pastela



ION Yanizrofenofa

cznicz efa
rasa~larr'ua

San Bartolome, 37 Tel: 74 06 27






Maidagan
Jantxidenda

Lois 70
JEANS & JACKETS

San Frantzisko, 20
Tel: 74 40 98



latea eta nastela • Al, bexamela: • Eatea eta aastela • Al, bexamela: • ratea



AGUIRRE
SASTRERIA

San Frantzisko, 30 Tel: 74 03 41



an Frantzisko kalean • San Frantzisko kalean • San Frantzisko kalean • San



Cit/01/0
OINETAKORK



San Frantzisko, 34 Tel: 74 02 35

iadalatik aora • Madalatik uora • Madalatik aora • Madalatik aora • Madalat



San Frantzisko, 29
Tel: 74 32 06



Galizian jaio zen baina betidanik bizi izan da Elgoibarren. Gumersindo Vilak 40 urte ditu eta bere gurasoak eta familai galziarrak dira. Joan den astebukaeran hauteskundeak izan ziren Galizian eta gure artera ekarri nahi izan dugu Elgoibarren bizi den galiziar hau zenbait gairu buruz berba egiteko.

§

GUMERSINDO

"Galiziarentzat onena Fragak irabaztea zen"

—**Jarraitu al dituzu Galiziako hauteskundeak?**

- Bai. Hauteskundeen bidez hemendik bizi ezin ditugun gauza asko ikus eta uler dezakegu. Sarri joaten naiz Galiziara eta aukera izaten dut bertako zahar eta gazteekin hitzegiteko baina hauteskundeetan nolabaiteko pultsoa hartzen diozu errealitateari.

—**PPk gehiengo osoa lortu du. Fragak pisu handia du Galizian, ezta?**

- Bai, hala da. Duela 8 urte, lehenengo aldiz irabazi zituenean hauteskundeak, Galiziarentzat onena Fragak irabaztea zela uste nuen. Gaur egun iritzi bera mantentzen dut.

—**Zergatik hori?**

Ulertzeko Galizia ezagutu behar da. Orain dela

10 urte Galizia oso utzita zegoen zentzu guztietan. Fragak indar handia du, ez bakarrik Galizian, baita Gobernu zentrolean ere, batez ere gaur egun, PP nagusi baita. Galiziaren alde beti egin izan du asko, eta hori ona da herriarentzat, beste balorazioetan sartu gabe. Fraga ez da nazionalista, baina Galiziaren alde beti egin du tira, ikusi besterik ez dago urte hauetan nolako errepideak egin dituen.

—**Halere, Bloque Nacionalista Gallegoak gorakada handia ezagutu du.**

- Bai, baina ez dut uste arrazoia botu nazionalistaren igoera izan denik. Nire ustez, IU eta PSOEek izan duten beherakadaren ondorioz, hoto ezkertiarra bereganatu du BNG-ak. Ez nuke

esango abertzaletasunaren igoera izan denik, oraindik ere minoria dira Galizian. Gainera, zalantzak ditut hauteskundeak BNGak irabazi izan balitu, Gobernu zentrolean Galiziarentzat zerbait lortzeko aukera izango ote zuen ala ez.

—**Galizieraz ba al dakizu?**

- Bai, baina 12 urte nituela ikasi nuen. Halere, gaur egun, lagunartean asko hitzegiten dut galizieraz. Nire bizitzako %30a galizieraz dela esango nuke.

—**Alaba bat daukazu. Galiziera irakatsi al diozu?**

Noizean behin hitzegiten diot baina bera euskaraz moldatzen da ondoen. Amarekin eta eskolan euskaraz hitzegiten du. Galiziara joaten garenean oporretan gauza asko ulertzen ditu eta abesti asko dakizki.

—**Jubilatutakoan asko Galiziara bueltatzen dira.**

- Bai, hala da. Gaur egun jubilatzen ari direnak 18-20 urterekin etorri ziren lanera eta bizitza osoa pasatu dute itzulera amesten. Nire kasua desberdina da. Ni hemen jaio nintzen eta ez dakit galiziar edo euskaldun, zer sentitzen naizen gehiago. Nik uste bietatik dudala eta sekula ez zait burutik pasatu ere egin egunen batean Galiziara joatea bizitzera. Nire familia, lagunak, lana hemen daude. Gainera, behin eskaini zidaten lanera joatea Galiziara baina ez nuen onartu.

—**Halere, ziur sarri joaten zarela,**

Hori bai, ahal dudan guztietan. Eta, esan duten bezala, autopista egiten bada, epe laburrean pare bat ordura izango dugu hemendik Galizia.

EESTEK ESANTEI

"Elgoibarren dagoenean euskaldun osoa da. Galizian dagoenean galziarra. Leku guztietan integratzeko ahalmena
PILI VILLAR, emaztea





Roberto Azpillaga 21 urterekin Tijuana (Mexico) alde egin zuen zestan jokatzera.

Robei4o Azpillolact

Anbiente politxa" topatu zuela esan digu. "Frontoiko kuadruan euskaldun gutxi geunden, gehixenak mexikanuak zian baina eta jatorrak". Tijuana hiria Mexieo eta EEBBen artean dago, San Diegorekin egiten du muga. "Influentzia amerikana oso haundixa da, asteburuetan batez ere".

Tijuanako frontoian bere emaztea den Dora Herna'ndez eza-gutu zuen. 93an Mexicon ezkondu ziren eta 94an Elgoibarren egin zuten ezkontza familiarekin eta heni-ko lagunekin. Gaur egun hiru urteko alabatxoak dute: MelissaAinhoa.

Tijuanan hiru urte egin ondoren, kontratu hobea eskaini zioten Floridako Orlando hiriko frontoi baterako. "Floridan 36 pelotari gaoz kuadruan eta 28 euskaldunak gera, pentsau! Euskal Herri-xan egotia bezela da".

Roberto urtero etortzen da familia eta lagunak ikustera. Hila-bete egiten du bertan. haundixakin juten naiz Elgoibarrera eta urtetik urtera pena gehixo ematen dia gero alde eitxiak". Aurrerabegira betirako Elgoibarrera bizitzera etortzeko asmoa daukate Robertok eta bere familiak.

Awp.
+ =

bidai agentziak babestutako atala

Foruen plaza, 3
Tel: 74 3 9 12

Alberto GonzMez Cobffin

(1 904-1 0703)



- 1904ku ekainaren 23an Riban jaio zen, Ruesgako aranean, Cantabrian.
- 6 anai-arreba ziren, nagusia bera.
- 9 urterekin osabak Kubara eraman zuen. Atzerrira oso gazterik irten beharra izan zuen. Urte mordoan arroz zelaietan eta azukrezko kaina ebakitzen lan egin zuen.
- 1936an bueltatu zenean gerra zibilarekin egin zuen topo. Entpublikarra zenez 3 urte egin zituen gartzelan. Bere jaioterritik 100 km.ra erbeste-ratu zuten eta arrazoi horregatik, bere emazte eta seme-aIabak hanu eta Mendarora etorri zen.
- M. Antonia Portillarekin ezkondu eta 6 seme-alaba izan zituzten, hauetako bost hemen jaiotakoak.
- Jubilatu arte "Forjas de Elgoibar" lantegian aritu zen. Tenpleko espezialista modura egin zuen lan. Egunero Mendarotik Elgoiharrera oinez egiten zuen bidea goizeko 5etan lanera sartzeko.
- 1953an Elgoibarrera etorri zen bizitzera familia guztiarekin, Artetxera hain zuzen.
- Begira zer gauza bitxia: ez zuen inoiz paga estrarik kobratu so l daduzkarik egin ez zuelako.
- "Sindicato Obrero de Elgoibar"ko ordezkaria izan zen urte batzuetan. Gizon apala zen, Elgoibarren oso ezaguna.
- Futbolzale amorratua zen. Oso pozik eta hit-rrero zegoen bere 4 semeak C.D. Elgoibarren joku-tu zutelako kategoria ezberdinetan. Bere seme Alberto lehenengo mailan aritu zen. Poz handiak hartu zituen Lerungo zelai zaharrean.
- Gizon oso langilea, serioa eta liberala zen eta asko maite zuen Euskal Herria.
- Elkarrizketa, pasiatzea eta irakurtzea gogoko zituen.
- 1976ko irailaren 16an hil zen Donostian 72 urte zituela.

Juanito Gorostiza

Dfl 1,1;

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

San Bartolome. 6
B. Ecnarro, 1
z 74 33 92

"\ **OIERKI** IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

(943) 20 35 15 • **ABERIAK** (943) 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) • **20600 EIBAR**



Ortopedia

**Ortesi, protesi eta
laguntza teknikoak**

Itziar Sarasketa
Tekniko Ortopedikoa

San Bartolome, 19
Tel/Faxa: 74 35 62



A

Argazki hau **Begotia Mugerzak** ekarri digu eta 1926. urtekoa da, gutxi gora-behera. Begoñak berak ez daki non aterata dagoen erretratu baina ziur dago Elgoibarko txokoren batean izango dela. Bertan agertzen direnetatik bi baino ez dira bizi. Argazkia zergatik atera zuten ere ez dago jakiterik baina esku artean du-

ten otarreatatik kuestazioren bat egin zuten egunekoa dela dirudi. Benetan polita da, ezta?

Ezkerretik eskuinera:

Zutik, **Benita Ulazia (t)**, **Felisa Unzueta (t)**, **Elena Murua (t)** eta **Avelina Carretero (t)**.

Eserita, **Jacoba Juaristi (t)**, **Cristina Bahamonde**, **Maritxu Mugerza (t)** eta **Margarita Muguruza**.

Lurrean, **Cari de la Cruz (t)** eta **Luisa Abascal (t)**.

Inmueble eta finantza agentzia

"1 DEBA

GARAIA

Errosario, 34 - 1 ezk.

Tel: 74 42 83 Faxa: 74 42 53

• inmueble eta orubeen tasazioak
• Aholkularitza fiskala
• Salerosketen gestio integrala
• Aholkularitza finantziarioan

• Elgoibarko zona ezberdinetan pisuak
• Hiru solairuko efixebizitza unifamiliarra 500 m2ko terrenoarekin. Eraikuntza berria.
• Pabilioi industrialak, lokal komertzialak eta garajeak.
• Terrenoak San Lorentzo eta San Migel bailaretan.

"Partidak ordenadorian analizatzen ditxut"



Jon Esnaola

- **Adina: 30**
- **Beltzak ala zuriak?** Zurixak beti, lenengo mobimientua eitzen dabalako.
- **Piezarik gustukoena?** Zaldixa oso berezixa iruditzen jata baina jokorako erregina da aproposaua.
- **Zenbat xake-joko dituzu etxean?** Lau tablero eta ordenadoreko lau programa.

—**Noiz hasi zinen xakean jokatzeko?** - Piezak mobitzen 9 bat urtekin aitxak erakutsita. Txapelketetan 19 urtekin hasi nitzan, txapelketa unibertsitarioan. Klub batian eman naban izena eta inguruetako jendiakin jokatzeko hasi ginan.

—**Zein izan da jokatu duzun azken txapelketa?** Oponak txapelketak daozen herrixetara juteko aprobatazten ditxut. Avilesen egon naiz, Badalonan, Ubedan, Linaresen eta Parisen.

—**Nazioarteko Federazioko zereendak ere bazau?** - Bai. Azken urtean lortu dot lista horretan sartzia. Bergaran jende gaztia lista horretan sartzeko kanpeonato bat ein zan eta gu gaztiekin jokatzeko eon gera.

—**Titulurik lortu duzu sekula?** - Ez, Elgoibar mailan bakarrik. Hiru aldiz izan naiz txapelketa eta pare bat aldiz txapelketaordea.

—**Espainiako txapelketan parte hartu duzu inoiz?** - Aurtengo udan, Torrevieján. Esperientzia nahiko ona izan da. Gainera Aretxabaletako beste mutil bat egon da, Granadako beste lagun bat ere bai... Azkenian ezagun mordo bat eitzen dia, beti berdinak ibiltzen gera.

—**Eta jokoari dagokionean?** - 30 bat profesional zaozen eta hoién aurrian nik ez dakat zer eginik. Lenengo txandak tokatu zitzaidan maisu internazional baten aurka jokatzia. Ahal naban guztia aguantau naban baina azkenian...

—**Jokalarien maila "elo"tan neurtzen da. Zein da zurea?** Nazioarte mailan 2.090; Estatu mailan 1.950 eta Euskal Herri mailan 1.965. Maila txu-

kun bat eukitzeko 2,200 euki bihar da.

—**Topikoa al da xake jokalariai oso argiak direla?** - Bai, gure mailan batez ere. Maila altuan izan leike baina gure mailan kalkulua da inportantia. Zure kontrarixuak zer eingo daban aurrikusi. Honez gain, asko jokatu bihar da. Ondoren partidak analizatu eta liburuetatik ikasi.

- **Zenbat ordu pasatzen dituzu egunean taularen aurrean?** - Media bat eitzen ordu erdi bat egunian. Nahiko gutxi da.

- **Nazioarteko zein jokalaria duzu gogokoen?** - Karpov. Oin batxe batian dauala esaten dabe. Oin munduko bi txapelketa daude. FIDE banatu ein zan eta horko munduko txapelketa Karpov da eta Kasparov profesionalen txapelketa. Gainera pertsona bezala nahiko desagradabilia da Kasparov.

- **Noiz ematen duzu amore partidak batean?** - Azkeniarate ezkutuko taktika guztiak erabiltzen saiatzen naiz baina kontrarixuak erakusten dizunian badakixala zertan ari zeran, orduan ematen dot amore.

- **Elgoibarko xakearen osasuna nolakoa da?** - Gaztetxoetan nahikoa zaletu dago baina 1. mailan nahiko gutxi. Jendiak laga eitzen du.

—**Ordenadorearekin ere jokatzeko duzu.** - Bai. Tranpak eitzen dizkiot eta zelán ez daban protestatzen... Kalkulorako kapazitate haundixa daka ordenadoriak eta partidak analizatzen erabiltzen dot. Akats taktiko asko ateratzen ditxu denbora gutxian.

K | ROL ALBISTEAK

• Patxi Arriola prehintziako ehiza txapelketarako sailkatu da

Joan den asteburuan Elgetan izandako zonako Ehi-za Xeheko txapelketan Patxi Arriola elgoibartarra bigarren lekuan sailkatu zen. Irabazlea Ricardo Ostiategi eibartarra izan zen 10 faisairekin. Patxi Arriolak, berri-ri, 8 txori ehizatu zituen. Bigarren postuari esker Patxi probintziako ehiztari onenekin lehian jarduteko aukera izango du datorren azaroaren 9an Otzaurteko ehizalekuan izango den txapelketan.



Azansrar 232r2 auFraois 1n Illsgurnan Ilatz zspaleta

Milioi bat pta. banatuko da saritan

Euskal Xake Federazioak antolatzen duen Nazioarteko Xake Txapelketa datorren hilaren 26an hasiko da. Aurkezpen ofiziala Udal areto nagusian izango da 26an bertan, eguerdiko 12etan. Zubi-Ondo Xake Elkarte eta Udal Kirol Patronatuaren laguntzaz egiten den txapelketa honek zazpigarren urtea beteko du aurten.



Munduko jubenilen txapelduna Elgoibarko Xake Txapelketan egongo da

Nazioarteko Xake txapelketaren VII. edizio honen kategoria iazkoaren berdina edo handiago izatea nahi dute Euskal Federaziokoek. Duela 7 urte egin zen lehendabiziko aldiz Elgoibarren txapelketa hau. Orduan 5. mailako kategoria zeukan eta urtero-urtero mailaz igozten joan da iazko 10. mailara heldu arte. Aurten 10 edo 11 zenbakiko kategoria izango du, beti ere, txapelketan izango diren jokalarien mailaren arabera, jakina. Izan ere, Espainian dagoen txapelketarik garrantzitsuenak, Linares herrikoak, 15 zenbakiko maila dauka.

"Finish" sistema

Partidak amaitzeko sistema aldatu egingo dute aurten. Partidak arratsaldeko 4etatik gaueko 10etara bitartean egunero jokatuko dira Kultur Etxean. Orain ar-

te jokaldiak atzeratzeko aukera zegoen baina aurrerantzean gaueko 10etan amaituko da partida. Hortaz, jokaldia bere horretan utzi behar da eta momentuan erabakiko da nor den irabazlea.

Milioi bat pta. saritan

Xake jokalaria bakoitzak "katxe" bat dauka eta horren arabera ko-bratzen du. Honez gain, sariak ere izaten dira. Elgoibarko Nazioarteko txapelketan milioi bat pta. inguru banatzen dira saritan.

Izenik ez

Momentuz ez dago ziurtatuta etorriko diren xakelarien izenik. Hala ere, jakin badakigu, jubenil mailako munduko txapeldunak Elgoibarren jokatuko duela. Euskadiko eta Estatuko txapeldunak, Felix Izetak, iaz Elgoibarren ira-

bazi zuen eta aurten ere gure artean izango da. Antolatzaileek Estatuko jokalaria onenak eta Nazioarteko maisuak ere gonbidatu dituzte. Bixikeria modura, Elgoibarko txapelketaren lehen edizioan Topalov jokalaria hartu zuen parte jubenila zela. Gaur egun, berriz, jokalaria hau Kasparov eta Annan maisuen parean dago; izan ere, eurak dira munduko hiru jokalaria onenak. Oraindik ziurtatu gabe dago bost urtez jarraian Elgoibarrera etorri izan den Ubilava errusiarrak aurten jokatuko duen ala ez. Ubilava oso ezaguna egin da gure herrian eta Zubi-Ondo elkarteak agintariekin eta jokalariekin antolatzen duen afaria oso gogoko izaten du. Jakin dugunez, tradizioa bihurtu da afariaren ostean "musean" aritzea.

Futbola

Osasuna Cr - Haundi 0

Soraluze 0- Elgoibar 1 (2. erreg.)

Pedrusko 3 - Aurrera 5 (2. erreg.)

Elgoibar 2- Astileku 1 (0ho. Jub.)

Elgoibar 1 - Amaika Bat 2 (1. Jub.)

Elgoibar 0 - Sporting 5 (Int.)

Zarautz 1 - Elgoibar 1 (Kad.)

Eskubaloia

Unceta Elg. 16 - Bergara 5 (Kad. nes.)

Arrate 12 - Pneumax Elg. 15 (Kad. mut.)

Legazpla 9 - Pagoaga Elg. 37 (Jub. nes.)

Arrate 26 - Tecnomeca Elg. 18 (Jub. mut.)

Elgoibar 23 - Allerru 22 (Seniorrak)

Areto futbo I a

Elgoibar 4 - Laskurain 4 (Aulonomikoa)

Elgoibar 0- Iraurgi 4 (1. maila)

- e = DA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 25

12:00 Elgoibar - Real Sociedad

(Kadeteak)

17:00 Haundi - Izarra

18:45 Elgoibar - Pedrusko (2. erreg.)

Igandea, 26

16:00 Elgoibar - Bilbo (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

larunbata, 25

16:00 Pneumax Elg - Loiola (Kad. mut.)

17:30 Tecnomeca Elg. - Loiola (Jub. mut.)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 25


19:00 Elgoibar - Alde Zaharra

Z 2

D'IT Ferrara

Yzatez artikulu hau bi zatitan banatu beharko genuke, bata zine aldetik eta bestea musika aldetik. Ohitura ez galtzarren bigarren zatiari helduko diogu. Abel Ferraralc bere filmerako aukeratu duen musika filmearen kokapenarekin bat dator. "El Padrino" eta antzeko filmeen garai berdinean kokatutako historia baten aurrean gaudenez, musika garai hartakoa izateak ez du inor jokoz kanpo hannatuko. Garai hartan indar handia zuten "Jazz" eta "Dixie Land" motako taldeek eta ardatz garrantzitsuenera jo du taldeak aukeratzekoan. Horrela, **Duke Ellington**, **Ben.ny Goodman** edo **Artie Shaw** bezalako artistak aurki daitzke disko berean. Hauxe aparte, beste talde interesgarri batzuk ere topa genitzake: **Mystic** taldea adibidez. Portishead taldearen ikutua duena, "Gloomy Sunday" izeneko abesti zoragarria jotzen dutelarik. **Carlo Butik** irekitzen du diskoa abesti napolitar triste baten eskutik. Maitasunez hiltzen zaigun **Concetta Gordonek** ematen dio agurra diskoari. Benetan gomendagarria **The Funeral** filmaren B.S.O.a. Lastima Chris Penn aktoreak t'iImean abesten duen abestia ez agertzea.


Than Urizar
Julen II



Edu Arrillagak hirugarren saria irabazi du "Imajina ezazu Euskadin lehiaketan"

Eduardo Arrillaga argazkilari elgoibartarrak Central Hispano banketxeak urtero antolatzen duen "Imajina ezazu Euskadi" lehiaketan hirugarren saria irabazi du. Eduardok lehiaketara aurkeztu zituen argazkiak "Herri baten Argia" izeneko bildumakoak dira. Kolekzio hau osatzen dituzten argazkiak pasa diren San Bartolome jaietan egon ziren ikusgai Kultur Etxeko erakusgelan. Elgoibarren erakusketa egin eta gero Bilbon egon dira argazki hauek ikusgai eta urtarrilean Donostian egongo dira.

Lehiaketa Aitor Ortiz bilbotarrak irabazi du, Bilboko Guggenheim museo-ko argazkilari ofizialetako batek. Lehiaketa honetan argazkilaritza atalaz gain, pintura eta literatura ere badaude eta izen handiko lehiaketa izateaz gain, sari garrantzitsuak banatzen dira.



Sari banaketa atzo, hilak 23, izan zen Bilbon, Baina Eduardok ez zuen joaterik izan eztaibidaian baitago.

• Deba Beheko "Euskarakomik lehiaketa" martxan

Elgoibar, Eibar eta Debako Udal Euskara Zerbitzuek "Euskarakomik Iehiaketa"n izena emateko epea luzatu egin dela jakitera eman dute. Lehiaketa haurrei zuzendua dago eta lanak azaroaren Sera arte aurkezteko aukera izango dute. Herriko lehenengoak 20.000 pta.ko saria jasoko du eta bailarako onenerentzat 45.000 pta.ko saria dago.



• Abertzaletasunari buruzko tesia egin du Esteban Antxustegik

Esteban Antxustegi unibertsitateko irakasle elgoibartarra "Abertzaletasunaren auzia: independentzia eta autonomia. Sabino Arana eta bere oinordekoak" izenburuko liburu aurkeztu zuen asteartean Donostian Euskal Herriko Unibertsitatean. Abertzaletasunaren barruan ageri izan den pluraltasuna jaso du bere liburuan Donostian bizi den elgoibartar honek. Sabino Aranaren garaitik aurrera izan diren ikuspuntu ezberdinen berri ematen du. Tesiaren aurkezpenean Sabino Arana Fundazioko lehendakaria den Anton Aurre, Joseba Arregi EAJko Igebil-tzarkidea eta Mikel Azurmendi tesiaren zuzendaria izan ziren Antxustegirekin batera.





Begirale lana, gazteen ofizioa

Duela hiru aste hasi zen Elgoibarko Izarrak antolatutako begirale ikastaroa. 30 neska mutlek eman zuten izena, gehienak 20 urte ingurukoak. Gaur egun aisialdia antolatu egiten da. Hau da, haurrek taldeka pasatzen dute denbora libre eta gehienetan begiraleek beraien-tzat prestatutako ekintzak egiten dituzte. Horretan dihardu Atxutxiamaiika Begirale Taldeak, esaterako.

Olatz Oñederra Atxutxiamaikako kidea da. Begirale tituloaz gain zuzendaria-rena ere badu eta hasi berria den ikastaroko koordinazio lanetan dabil. Berak esan digunez, "jende asko hurraritzen zan begiralea izan nahi zabala esaten eta ia kursiltoren bat ez genduan antolatu bihar". Gaia aztertu, deialdia egin eta martxan jarri zen ikastaroa Urtxintxa taldearen ardura-pean. Maiatzera arte luzatuko da eta amaitzean nahi dutenek aukera izango dute Atxutxiamaikako kide izateko.

Gazteek 23 urte ingurura arte ikasten egoten dira. Lehenago edo geroago lanean hasteko beharra sortzen zaie eta begirale izatea aukera benetan ona da diru piska bat boltsikoratzeko. Haurrak gustuko dituztenak eta denbora libre zerbait egiten emateko prest daudenak izan ohi dira begirale izatera animatzen direnak. Hori eta gauzak ikasi, lagunak egin eta, nola ez, baita diru piskat irabazi nahi dutenak ere. Begirale ikastaroa hasi duten bi neska ekarri ditugu gure arte-ra, zerk bultzatu dituen jakin nahian.

ETA ZU, ZERGATIK ANIMATU ZARA?

AMAIA OVEJERO

19 urte

"Nik lehen ere eixia nahi naban baina ikastaro danak kanpua zian. Elgoibarkua sortu zanian segiduan animau ginan kuadrilako 7. Umiekin gustora ibiltzen naiz eta begirale izatia aukera ona da diru piskat irabazteko. Danok izan gera umiak eta ez dot uste problemarik eukiko dogunik gera umiak animau eta motibatze-ko. Igual kursilluan korte gehixo ematen dizu zure edadeko jendia daualako baina umiekin desberdina da".



NEREA LARRAÑAGA

19 urte

"Nere amak egunkarixan ikusi zaban anuntziva eta komentau ein zian. Goizetan denbora mordo bat dakat libre eta pentsau naban interesgarrixa izango zala. Umiak beti gustau izan jatuz eta udan zeozer eixia nahi naban. Gustora lan ein eta gainera zeozer irabaztia ez dator gaizki. Momentuz oso gustura nao ikastaruan. Berriz ere haurtzarora bueltatzia bezela da, denbora guztia jolasak eixen, barre mordo bat eixen dou... Askok ikasten da".



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anb ulategia.	
Larrialdiak	461111
Txanda hartzeko	743354
Planning-a	742950
Alkoholko Anonimoak.	740385
O Y.A (anbulantzia)	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitalea	756264
Odol Emailak	743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar) 902 10 12 10	
Taxi geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua ..	744366
Udal Kirol Patronatua	744415
Kultura Zerbitzua ..	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	741008
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra ..	741626
Ki roldegia	744415
Kontsumo Bulegoa ..	743088
Li bu rutegia	743525
Musika Eskola	742145
Mintxeta	744315
Parrokia	740842
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza ..	740296
Zaharren Biltokia ..	740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola	74 21 41
Herri Eskola	74 08 79
H	74 41 32
Herri Institutua	
Arreitu rre	74 02 67
Ezenarro (Meka)	74 44 80
Ikastola	74 44 41
Pilar Ikastetxea	74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN	74 41 12
El Diario Vasco	74 40 73
El Correo Español	74 10 82
Egin	10 84 21
Zazpiki Irratia	74 34 74

24 BaRREN

24 ostirala

22:15 ZINEA
"Secretos del coraz6n"

arun ata

8:00 TRIANORA
MENDI IRTEERA
Antolatzailea: Morkaiko
Mendizale Elkarte

12:00 ZAZPIKIren
BILERA
Ganbaran

19:00 HBren
MANIFESTAZIOA
Irteera Madalatik

19:30-22:15 ZINEA
"Secretos del coraz6n"

26 igandea

19:30-22:15 ZINEA
"Secretos del coraz6n"

27 astelehena

18:00 BUZTIN
IKASTAROA
HAURRENTZAT
Lurkiren lantegian (Aita
Agirre plazan)
Azaroaren 19ra arte

22:15 ZINEA
"Secretos del coraz6n"

29 asteazkena

18:30 GURASOEN
BILERA
Arreiturren
Antolatzailea: Herriko
Institutua

19:30 GURASOEN
BILERA
B. Ezenarron
Antolatzailea: Herriko
Institutua

80 osteguna

22:15 ZINE KLUBA
"Box of Moonlight"

31 ostirala

19:00 KOMIKI
ERAKUSKETA
Azaroaren 9ra arte

22:15 ZINE KLUBA
"Box of Moonlight"

ER •• l •■ al 111 RI II • 11 ••• 111 ■ • 1111 • 111 11 ■ •

1,1
NE
A



Zuzendaria: Montxo Armendariz.
Antzezleak: Andoni Erburu, Cha-
ro Lcipez, Carmelo Cimez.

Secretos del corathn (1997)

Nekazal munduan bizi diren hiru hau-
rren istorioa kontatzen du pelikulak.
Hazten ari diren hiru mutiko hauek na-
turaren misterioak deskubritzen joan-
go dira bizitzako fase ezberdinetan:
haurtzaroan, nerabetasunean eta azke-
nik, heldutasunean. Heriotza, maitasu-
na eta sexua, ordura arte ezezagunak
diren esperientziak ezagutuko dituzte.

111 - R 11 • R

111 • 111 11 ■ l •• El • 11 • al 11 • 11

11 ■

• **HBk deitutako manifestazioa**

Bihar, larunbata, Elgoibar-ko HBk manifestaziorako deia luzatu du Tuan Carlos Mareos HBko zinegotziak jasotako heriotza mehatxua dela eta. Manifestazioa arratsaldeko 7etan hasiko da Madalan.

• **Gurasoen bilerak Herriko Institutuan**

Herriko Institututik bidalitako oharraren arabera, datorren asteazkenean, hilak 29, gurasoen bilerak egingo dira Herriko Institutuan. Arratsaldeko I. 8: 30ean Arreiturreko ikasleen gurasoen bilera hasiko da eta ordubete beranduago, 19:30ean Bernaxdo Ezenarroko ikasleen gurasoena.



• **Datorren ostiralean hasiko da Kokoeren komiki erakusketa**

Bi urtetik behin Kokoe Komiki Elkarteak antolatzen duen komiki lehiaketa-erakusketa datorren ostiralean, hilak 31, hasiko da. Estatu osoko komikilariek egindako lanak ikusi ahal izango dira Kultur Etxeko erakusgelan azaroaren 9ra arte. Guztira 15 komikilarik aurkeztutako lanak hartuko dute parte lehiaketan. Irabazlearen izena sari banaketa egunean bertan emango da ezagutzera. Lehen sailkatuarentzat 100.000 pta.ko saria egongo da. Bigarren sailkatuak 70.000 pta.ko saria jasoko du eta hirugarrenak 40.000 pta.koa. Euskarazko komiki onenarentzat 30.000 pta.ko saria dago eta ikusle goak sari berezia emango du.

• **Haurrentzako hurtin ikastaroa**

Lurki elkarteak haurrentzako buztin ikastaroa antolatu du. Urriaren 27tik azaroaren 19ra bitartean, umeez tornuen bidez buztina lantzen ikasiko dute. Klaseak astelehenera ostegunera izango dira arratsaldeko 6etatik 8etara. Interesatuek Aita Agirre Plaza behean elkarteak duen lokalean eman dezakete izena.

• **Zazpikiren bilera Ganharan**

Zazpiki Irratiak bilerrako deia zabaldu du larunbaterako, hilak 25, eguerdiko 12etan. Bileran hainbat gai aztertuko dira: irratsaio berriak, programazioaren nondik-norakoak etab. Irratizaletu guztiei bilerrara ager daitezten dei egiten zaie.

FAR MAZIAK

- | | | |
|-----------|-------------------|---|
| | Eguez | Gauzez |
| 25 | Yudego | Yudego |
| 26 | Yudego | Yudego |
| 27 | Etxeberria | Etxeberria
(Errosario kalean) |
| 28 | Etxeberria | Anduaga
(Santa Ana) |
| 29 | Yudego | Zabaleta |
| 30 | Etxeberria | Etxeberria
(Santa Ana kalean) |
| 31 | Yudego | Escala |
- ESCALA: **Rekalde, 1**
Soraluze. Tel: 75 16 38
 ANDUAGA: **Mendarozabal, 1**
Garagarza. Tel: 75 61 42
 ZABALETA: **Kalebarren, 9**
Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

26 ipnclea Zabaleta

1111 ■ MMI ■ ZZEIZE ■ 111 ■ --111 ■

ONGARRI
zine kluba

Zuzenclaria: Tom DiCilio
Antzezieak: J. Tuturro, S. Rockwell.

Box of Moonlight (EEBB 1996)
Fabrika batean lan egiten duen injinerru baten eta aire librean bizi den pertsonaia xeble baten artean adiskidetasun hanemana sortzen da. Injinerua amerikarren bizitzeko estilo erosoren adierazgarria da. Baina bat-batean izateko eta pentsatzeko modua ere erabat aldatzen ditu. DiCiliok amerikarren bizimoduaren erretratu kritikoa egiten du.

■ Mall ■ la ■ IE ■ ■ ■ III

Salerosketak

• SALDU •

- ◆ 90 em.ko 3 modulo, 90 em.ko burutegia, 2 siloi (3+2), bi mahai (erdikoa eta izkinarako), alfombra hat eta lau lanpara saltzen ditut. Berri-berriak. a 12 19 46
- "Grandes maestros de la pintura moderna" bilduma salgai. Estrenatu gabe. 12 tomo. tr 74 40 85 (gauetz)
- Musika ekipoa (tokata, irratia eta kasetak) salgai. 5.000 pta. 1T 74 40 85 (Gauetz)
- Ordenadore pertsonala saltzen da, pantaila, teklatu eta CPU arratoiarekin. 486 A40 MHZ, HD 210, RAM 8 mb., Word 6.0, Acces antivirus, ernawin eta abarrekin. tr 15 01 01 (.Jose Mari)
- Olivetti makina erregistratzailea saltzen da. Egoera onean dago. a 74 04 70
- Bi hilabeteko koker txakurkumeak salgai. tr 75 60 25
- Sero Sette markako esku soinu txiki profesionala saltzen ditut. 11- 75 61 47 (Unai)
- Baserrian jasotako urrak eta in-txaunak saltzen dira. Tr. 74 23 30 (Eusehi)

Bestelakoak

- 62 metro karratuko lokala alokatzen edo saltzen da Kalamua 7an. a 74 18 94/ 945 27 78 08
- Zapatuan urrezko pultsera galdu nuen. s 74 31 44
- Astelheanean, hilak 20, urrezko seilu bat galdu nuen L.Z. inzialekin. s. 74 18 08 (Leire)
- Volkswagen markako giltza galdu dut. s • 74 05 32
- Taherna traspasatzen da Dehan. Manxan dago eta hezero onak ditu. Orain dela gutxi berri-tua. er 19 19 54
- Ileapaindegia alokatzen da Bergaran. 2! 76 56 85.
- "Adidas One" txandal urdin haten goiko parte galdu dit Ikastola edo Plaza aldean. 14 tailakoa da. 74 22 30
Hamster hat oparitzen dut kaiola eta guzti. a 74 25 17
- Merkantziak, hidaiariak eta laguntzaileak garraiatzeko kapazitatez titulok daukat. Interesatu-ek deitu 74 38 15 zenbakira.
- Hilaren 8an belarritako hat galdu nuen. Urrezkoa da eta perla bat dauka. Topatzen duenak dei dezala 74 14 46 telefonora.

Partikularrak

- Marrazketa tekniko eta diedri-koko klaseak hartuko nituzke euskaraz. a 74 27 78 (Sara)
- Lizentziatuak fisika eta kimika-ko klase partikularrak emango lituzke. Maila guztiak. lr 74 43 98/74 08 09 (Marian)
- Marrazketa tekniko eta diedri-koko klaseak ematen dira. 74 43 98 (Inaki)
- Fisika eta matematika klase partikularrak ematen ditut. t? 74 13 34 (Andoni)
- Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. a 74 09 72 (Garikoitz)
- Matematika, kontabilitatea, praktika administratiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri huruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. .2 74 21 65 (Javi)

Etxebizitzak

- Etxebizitza salgai Deban. Alameda parean, hondartzatik 50 metroa. Berritua.tr 908 57 95 89
- Etxea alokatzen da San Bartolome kalean. Altzariekien. s 74 00 65
- Etxea alokatzen da Erretxindin. lr 74 22 25 (Arrate)
- Benidorm-en apartamentua alokatzen da. Igerilekua, aparkalekua, garbigailua eta telehista ditu eta hondartzako lehen ilaran dago. 74 20 31
- Pisua salgai Pedro Mugaruzan. tr 74 04 56 (Maria)

Garajeak

- Garajea saltzen da Juan Mugerza kalean. tr 74 12 04
- Pista heltzean garaje itxia alokatzen dut. tr 74 03 81/ 74 15 01 (Gauetz)
- Garajea alokatzen da San Roken, Aterpe tahernaren azpian. m 74 33 39
- Bi garaje alokatzen ditut Santa Ana kalean. ser 74 05 49 / 74 09 09
- Trenhide kalean garaje salgai. Oso handia da, errulota edo bi kotxe sartzeko heste. Sobrepison dauka. a 74 01 33
- Garajea salgai Juan Mugerza kalean. tr 74 12 04 (20:00-22:(81)

Iana

• ESKAINTZA •

- Neska euskalduna behar dut etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Hohe esperientziaduna. lr 74 12 33 (21 :00etatik aurrera)
- Neskatila hat zaintzeko neska euskalduna behar da. 74 41 54 (Mertxe. Gauetz)
- Bi pertsona nagusi zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Goizeko 9etatik arratsaldeko 8etara. s 74 29 30 (arratsaldeko 3etatik 4etara)

• ESKAERM

- Neska gaztea eskaintzen da etxebizitzak, portalak, bulegoak eta bestelakoak garbitzeko. Esperientzia daukat. tr 74 06 09 (Marisabel)
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 13 74 07 32 (M. Angeles)
- Neska euskalduna eskaintzen da tabernan lan egiteko edo umeak [zaintzeko. Esperientziarekin.](#) tr 17 47 70
- Emakumea eskaintzen da gaixorak edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. 1a- 17 47 70
- Gizona eskaintzen da pulidore lanak egiteko, z 17 47 70
- Mutil gaztea eskaintzen da 2. mailako igeltsero edo enkofratzaile lanak egiteko. tr 17 47 70
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko, 74 25 42
- Barne Komertzio tituloduna dendari lanetarako edo umeak zaintzeko eskaintzen da. tr 74 10 09
- Ileapaintzaile titulodunak edozein lan egingo luke. tr 74 35 43 (Kristina)

- Gutxitu Fisikoen Hezitzaile eta Klinika Laguntzaile tituloduna pertsona nagusiak edo haurrak zaindu edo beste lan hatzuk egiteko prest, a 74 34 68
- Haurrak zaintzeko neska eskaintzen da. Egun osorako. rs 74 32 98
- 29 urteko neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. E.sperientziarekin. tr 19 21 28 (Asun).
- Lokalak, tabernak eta antzekoak garbitzeko emakumea eskaintzen da. tr 74 18 68
- Pertsona nagusiak zaintzeko emakuntza eskaintzen da, esperientziarekin. ar 74 04 86 (Victoria)

Agurrak

- Zorionak Miryam Goy Egureni hilaren 16an 6 urte bete zituelako. Itsaso Perez eta Nerea Goyren partez.
- Zorionak Saioa Iriondori bere 16. urtebetetzean. Segi beti bezain jator. Familiaren partez.
- Urriaren 2 lean 14 urte bete zitu- en Evelyn Santos punkyari zorionak zure hetiko lagun Maite- ren partez. Segi horrela. Zorionak kuadrilakoan partez haita ere.
- Hilaren 26an 14 urte beteko di- luen Nerea Bereziartua "Txurfer- rari" zorionak neska gaizto baten partez. Nor ote?
- Superzorionak Maite Elizbururi urriaren 2lean urteak bete zitue- lako.



izeben partez.

- Zorionak Jo- kin Salegiri bihar, hilak 25, urteak beteko di- tuelako. Ainboa. Unai eta familia- ren partez.



- Zorionak Jon Ander Alvarezi hilaren 22an 5 arte bete zitue- lako. Familiaren partez.




- Zorionak Lei- re Egañari la- runbatean 11 ur- te beteko ditue- lako. Lehengusu Juanjo, Nerea eta Andoniren partez. Pastelak ekarri! Etxeko guztien partez ere musu haundi hat. Zorionak haita ere Nerea, Jakoh eta Isaaken partez.

- Zorionak M. Angeles Zabalarri hila- ren 2 I ean `tai- tantos' bete di- tuzulako eta gu- re perrexila iza- ten jarraitu urte askotan. Zure koadrila.

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK eta GARAJEAK :401/^{ti}



- Etxebizitza bakarra, ganbararekin
- Etxe osoak kanpora ematen du, eguzkitsua
- Material bikainekin amaitua
- Gasezko berogailua eta ur bero indibiduala
- Ordainketa-era hitzegitekotan

EZ 00«0101i/Mt *all*

Informazioa eta salmenta 20 83 16

Azaroak 1
Domusantu eguna

Enkarguak jasotzen ditugu



ISTIGARRICA



Jausoro plaza, z/g Tel: 74 43 86



Ez duzu **98**ko
Gida
Komertzialetik
kanpo geratu nahiko,
ezta?



Zure enpresa, denda edo lantegia gidan azaltzea
nahi baduzu, deitu **BARRERA**

Tel./Faxa: 74 37 04